

2.3 ACTUALIZACIÓN DEL SISTEMA OPERATIVO  
2.3 SISTEMA OPERATIVO EGUNERATZEA



## ¿POR QUÉ ACTUALIZAR LOS DIFERENTES SISTEMAS OPERATIVOS?

### ZERGATIK EGUNERATU GURE SISTEMA OPERATIBOA?

*Los sistemas operativos son programas que se hacen necesarios para la utilización de cualquier ordenador. Existen diferentes sistemas operativos, siendo los más habituales Windows, 95, 98, 2000, XP, Linux y Mac.*

*Sistema operatibo edo eragileak beharrezko programak dira edozein ordenagailu erabiltzeko. Zenbait sistema eragile daude eta ohikoenak hauek dira: Windows, 95, 98, 2000, XP, Linux eta Mac.*

Tomando como referencia los primeros sistemas operativos que se citan, se podría ver de manera fácil, que con el paso de los años han ido evolucionando y han ido saliendo diferentes sistemas. Estos sistemas van mejorando y se van adecuando a las necesidades de la persona usuaria, por lo que se deben ir actualizando con el paso del tiempo.

Aipatutako lehen sistema eragileak erreferentzia gisa hartuta, erraz ikus daiteke urteak aurrera egin ahala bilakatzen joan direla, eta sistema berriak ateratzen ere. Sistema horiek hobetzen eta erabiltzailearen beharretara egokitzen doaz; hortaz, denborarekin eguneratu behar dira.

Ana Ortiz es propietaria de una pequeña empresa dedicada a la moda textil, cuenta con 10 personas. En estos puestos de trabajo disponen de ordenador y una serie de "periféricos" capaces de realizar las tareas de diseño y corte de las prendas que realizan.

Ana Ortiz ehun-modan diharduen enpresa txiki baten jabea da, eta 10 langile ditu. Lanpostu horietan, egiten dituzten jantziak diseinatu eta mozteko lanak egiteko gai diren ordenagailua eta "periferikoak" ditu.

La empresa fue creada hace cinco años y desde entonces ha ido adquiriendo nuevos ordenadores y nuevas aplicaciones para el desarrollo de su actividad empresarial. En la actualidad cuentan con diferentes "sistemas operativos" en cada Ordenador.

Enpresa duela bost urte sortua da eta, orduetik, enpresa-jarduera garatzeko ordenagailu berriak eta aplikazio berriak eskuratzen joan da. Gaur egun, "sistema eragile" desberdinak ditu ordenagailu bakoitzean.

La empresa textil en la actualidad dispone de diferentes aplicaciones de diseño y patronaje, y decide unificar todas ellas en una misma herramienta, por lo que manda a una empresa proveedora informática la creación de una herramienta mas actual que englobe todas las finalidades de las que dispone entre las aplicaciones actuales, mejorando con ello el diseño de la aplicación y un mejor manejo de la información, pudiendo así añadir nuevos catálogos que envían diferentes empre-

Jantzizigintza-enpresak diseinu eta patroigintzako aplikazio desberdinak ditu egun, eta horiek guztiak bateratzea erabaki du. Beraz, informatikako enpresa hornitzaile bati eskatu dio tresna eguneratuagoa sortzeko, oraingo aplikazioetan eskura dituen erabilgarritasun guztiak bilduko dituen; horrela, aplikazioaren diseinua hobetu eta informazioa egokiago erabiliko den moduan. Helburua da ehunak hornitzen dituzten enpresen katalogo berriak eta enpresa hornitzaile gehiago ere gaineratzea.

sas proveedoras de tejidos e incluso añadir nuevas empresas proveedoras.

Una vez realizada la nueva aplicación se disponen a instalarlo en todos los ordenadores, y es entonces cuando se dan cuenta que alguno de los mismos no disponen de suficiente capacidad para dicha aplicación. Este tipo de herramientas necesitan de una serie de requisitos por parte de los ordenadores, ya que al ser tan gráfica la herramienta los ordenadores deben de disponer de una serie de elementos acordes a la aplicación. Como primer requisito deben disponer todos los ordenadores de un sistema operativo actual y no anticuado. Ana Ortiz deberá actualizar cuatro de los 10 ordenadores que dispone en la oficina. Este tipo de actualizaciones pasa por la homogenización del sistema operativo de toda la red de la oficina, actualizando todos los ordenadores a un sistema operativo actual, como por ejemplo Windows 2000 o bien XP.

Aplikazio berria amaitu ondoren, hura ordenagailu guztietan instalatzeko prest daude. Orduan konturatzen dira horietako batzuek ez dutela behar adinako ahalmenik aipaturako aplikazioarako. Mota horretako tresnak instalatu ahal izateko, ordenagailuek zenbait eskakizun bete behar dituzte. Izan ere, aplikazioa hain grafikoa denez, ordenagailuek harekin bateragarri izango diren zenbait elementu bildu behar dituzte. Lehen baldintza gisa, ordenagailu guztiek sistema eragile eguneratua eta zaharkitu gabea eduki behar dute. Ana Ortizek bulegoko 10 ordenagailuetatik lau eguneratu beharko ditu. Eguneratze horrek bulegoko sare osoaren sistema eragilea homogeneizatzea eskatzen du. Horretarako, ordenagailu guztiak egungo sistema eragile batera eguneratu behar dira, esaterako Windows 2000 edo XPra.

La homogenización y actualización de los sistemas operativos a uno más actual en cualquier empresa u organización, nos ayudará a evitar que los ordenadores se queden bloqueados, así como, evitaremos el no poder instalar nuevos periféricos al no disponer de archivos para sistemas operativos anticuados.

Sistema eragileak oraingo sistema batera homogeneizatu eta eguneratzeari esker, ordenagailuak blokeatuta geratzea saihestuko dugu eta, era berean, periferiko berriak instalatu ahal izango ditugu, horiek sistema eragile eguneratuetarako fitxategiak baitituzte.